

# Esanahi berriak

**G**ogoan duzue zein den oraindik maitasunaren definizioa Espainiaren Erret Akademiaren arabera? «Maitasuna: gizakiaren sentimendu indartsua, norberaren askieztasunetik abiatuta, beste gizaki batekin elkar-tzeko beharra eta nahia eragiten dituen»a. Pentsatu zer den Espainiako eliza, epaitegi eta udaletxe-etan elkarri betiko maitasuna zin egin dioten gizakiek egindako promesa! Eskerrak gehiengo zabalak ez duen hiztegi joko etzei-bidialatik itzultzerakoan. Alde horretatik, askoz osasungarriagoa dirudi ezkontza euskaraz egiteak. Euskaltzaindiaren arabera, maitasuna da norbaiten edo zerbaiten alderako atxikimendua sortzen duen joera edo sentimena, haren ona bilatzera bultzatzen duena. Ez du ematen amasa eteteko moduko sentimendu pasionala, baina euskal ezkontideen batura behintzat ez da izango penintsulako laranja erdi biren zukua.

XXI. mendeko Europako hiztegien arazo handiena adierazleen eta adierazien arteko loturan zentzua: batetik, adierazle askok ez zuten esanahi egokirik, gaztelaniazko maitasunaren definizioa adibide; bestetik, adierazi askok ez zuten adierazlerik, familia eta harreman ereduaren aniztasunaren kalterako. Neba-arreben arteko ahaidetasunak halako zehaztasunez adierazten dituen Aitorren hizkuntza zaharra bera ere hitzik gabe geratzen zen, adibidez, aita biz edo ama biz osatutako bikoteak bereizi nahi zituenean. XX. mendearen bukaeratik, eskoletako jolas-orduetan, ume-tako soka-saltorako kantu batek «Aita, ama, zenbat urterekin ez-konduko naiz» zioen. Ia mende osoa jandako diktadurak familia ugari hautsi bazituen ere, Jean Baptiste Elizanburuk XIX. gizal-dian bertsoan jarritako aita-ama seme-alaba eredu garrondoan zizelkatu zieten haurrei. Denek zuten ama eta aita bana. Beno, de-



**ARKUPEAN**  
Xabi Paya

**XXI. mendearen erdia behar izan genuen onartzeko ez dagoela hamarreko familia eredurik, edo asko direla umeen heziketan hamarra ater dezaketanak**

nek ez, Izaskunek ez zuen amarrik; bera umea zela hil zen. Unaiak esaten zuen berak ez zuela aitarik, baina gurasoak banatuta zeuzkan, hori baino ez. Ametsen gurasoak zahar samarrak ziren ezkondu zirenerako eta, arratsaldean bila etortzen zitzaizkionean, haren aitona-amonak ematen zuten guraso gazte xegoen artean. Pentsatzen hasita, orduko payatarrena ere ez zen eredu fidela, aitek urte erdia munduaren bestaldean egiten baitzuen lanean.

XXI. mendearen erdia behar izan genuen onartzeko ez dagoela hamarreko familia eredurik, edo asko direla umeen heziketan hamarra ater dezaketanak. Eguzkia, etxea, autoa, aita eta ama plastidecorrak izan ohi zituzten eskolaurteko irudi zahar-rrak asko aldatu dira ordutik: bartzuetan gizarteak aitek edo-eta amak ezabatu ditu (edo sekula ez dituzte marraztu); besteetan krisiak etxeak eta autoak, eta eguzkia ere

iraganeko kontu bihurtzen hasita dago. Familia hitzak jatorri latindarra du eta erreferentzia egiten dio gosea elkarrekin kentzen duen lagun multzoari; terminoaren etimologiak ez du ez aitarik, ez amarrik, eta egungo familiek ere ez dute horrelakorik, baina berdin-berdin segitzen dute bere kidea gose efektiboa edo afektiboa asetzen.

Oraindik gogoan dut Euskaltzaindiaren lehen mendeurrena ume oso berezia izan zela euskararentzat; ez bakarrik batuak mende erdia bete zuelako, ezpada erakundeak ospakizun urtean gutxienez 100 urteko aurrerapausoa eman zuelako zenbait hitzen adierazte eguneratzean. Gutxi ziren 2.0 errealtatara jauzi egiteko premia nabarmena zutenak: errainak eta suhiak seme zein alaban senar zein emazte bihurtu ziren; guraso hitzaren sarrerari «aitak edo/eta amak» gehitu zitzaion eta bigarren adierari «berreziki, aita» esaldia ezabatu... Ez ziren ehun karaktere baino askoz gehiago izango Euskaltzaindiarentzat, baina karaktere aldaketa handia izan zen euskaldunen-tzat.

# Azkenean lortu dugu, aita!

## Maddi Alvarez

Txillardegiren familiaren izenean

**A**zkenean, 6 urteren buruan bada ere, Donostian zuk egindako lan mardularen nola-baiteko aitortza herri-tarra da Antiguako Gaskaña plazan Mikel Herreroekin oroimen horma irudi ederra. Gorka Eros-tarke kazetariak esan duen moduan, «ofiziala da iristen ez den aitortza».

Emozioz beteriko umea izan da Antiguara nola bueltatu zaren ikustea, Txillardegi baserri-etxearen lursailera, zuk bultzatu zenuen Euskara Batuaren 50. urteurrenean. Zirraragarria izan da lagun askoren artean pasa dugun umea. Tristeena zera da, Donostiako Udaletik ezarri dizuten betoa zeharkako bideak erabiliz gauditu behar izan dugula, eta Txillardegi Udal Liburutegia herri ekimenak egin duen lanari esker ez balitz, ahanzturaren bidean zokoratuta edukiko zintzuketela oraindik. Milesker sei urteotan herri ekimen honen dinamiz-tzaileak zaretzen Fito Rodriguez, Dani Gofí, Martin Anso, Josu Tellabide eta Jexux Arrizabalagari.

«Zer egin duzu, bada, horrela tratatua

izateko?» galdetu zuen Dani Gofí euskaltzaleak bere iritzi artikuluan. Ezagutu zintzuegunok badakigu nolakoa zinen, gizon ona, eta bizitza osoan Euskal Herriarekin kezkatuta eta haren alde etenik gabeko lanean. Zenbat lan egin zenuen! Jakin aldizkariak egin duen bildumaren arabera, 25.000 orrialdeko lana utzi zenigun idatzita. Hori gutzia inork ezin du ukatu, ezta zure arerioek ere, eta horregatik ezin dugu ulertu nolatan Donostiako Udalean dau-den zinegotzi batzuek (EAJ, PP, PSE) zure ekarpena gutxiesten duten. Horretarako zilegitasuna al dutela sinisten al dute?

Frankismo garaian ET'Aren sortzaile-tako bat izan zirela diote eta egia da. Gure herriaren historia behar bezala ezagutuko balute, eta informazio partzialetik haratago joko balute, jakingo lukete ETA zer izan zen, benetan, sortu zenuten garaian eta zergatik sortu zenuten. Onintza Odrizola-ren doktore tesia irakurtzea besterik ez dute ETA mugimendua zer izan zen jakiteko. Bi esalditan: «(ETA)k Abertzaletasun berri bat ekarri zuen, arraza alboratu eta euskalduntasuna naziotasunaren oinarriari jarri zuen» eta «Mugimendu haren guztiaren eraginez, ezkutuan eta lozorroan zegoen mundu abertzalea azalera atertu zen pixkanaka». Eta denok dakigun moduan, aita izan zen ere ET'Aren borroka armatuaren zikloa amaitu beharra zegoela

**Jarrai dezagun hain arrotza zaigun Donostiako paisaia euskal izarrez betetzen eta euskal oroimen kolektiboa plazaratzen. Datorren oroimen horma irudia Artzerena izan liteke**

publikoki esan zuten lehenengoetako bat. Zorionez, horrelako argudioen gaitetik, jende askok ikusten du zure lanaren balioa, kulturagintzan dabilen hainbat eragilek, idazlek eta baita herritarrek ere. Donostiako Udalean inoiz jabetuko al dira?

Bitartean, familiaren aldetik gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Txillardegiren horma irudiaren inaugurazioan parte hartu duten Ibon Sarasola, Joxe Manuel Odrizola eta Beñat Gaztelumendi. Eta baita ere, nola ez, saxo joleari, dantzari-ri eta Antiguako Kantu Jirakoeti.

Ezin amaitu eskertza gutun hau, hil berri den Joxan Artze handia aipatu gabe. Gure besarkadarik beroenak bere gertuko senidei. Modernitate faltsuaren eta uesteko berrikuntzaren izenean, zaharra baztertu behar dugula esaten duten horien aurrean, iturri zaharretik beti ur berria edaten zuela esan zigun Artze genialak, gure bizitza eta mundua beste era batera antola genezakeela adieraziz. Ikur handia galdu du euskal kulturak. Espero dezagun gure herriaren curriculumean eta oroime-nean dagokion tokia izateko arazorik ez izatea.

Jarrai dezagun hain arrotza zaigun Donostiako paisaia euskal izarrez betetzen eta euskal oroimen kolektiboa plazaratzen. Datorren oroimen horma irudia Artzerena izan liteke.